

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa

2020ko dirulaguntza deialdi orokorra. 34. eranskina: Ibilerraztasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko diru-laguntzak. BDNS (Identif.): 517130.

Diru-laguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Datu Base Nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/517130>).

Diru-laguntzen 2020ko deialdi orokorra onartzeko Irungo Udaleko Alkatezaren 2020ko uztailak 22ko 685. zk. Ebazpenaren laburpena.

Diru-laguntza lerroa: Ibilerraztasuna eta efizientzia energetikorako diru-laguntzak.

Diru-laguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datutegi Nazionalean aurki daiteke. (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/es/convocatorias/organo/LO1200454>).

Deialdi honekin lotutako dokumentazio eta informazio guztia Irungo Udalaren Interneteko Atarian kontsulta daiteke: www.irun.org.

Xedea.

Oinarri hauen xedea da honako jarduketa-eremu hauetarako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea:

1. lerroa: Ibilerraztasuna hobetzeko jarduketak: Igo-gailu faltagatik edo atari barruan edo atarirako sarreran desnibelak (eskailerak) edo beste eraikuntza oztopo batzuk daudelako igo-gailua oker kokatzeagatik Ibilerraztasun Legea betetzeko dauden zailtasunak ahal den neurrian ebazteko jarduketak zehazteko proiektuak eta berauek gauzatzeko lanak eta etxebizitzaren barruan gelen arteko ibilerraztasuna hobetzeko eta mugikortasuna eragozten duten oztopoak kentzekoak. Merkataritza lokaletan ahal den neurrian ibilerraztasunari buruzko araudia hobeto betetzeko jarduketak eta, tartean, eskailerak eraikita ebatzitzeko eta soluzio alternatiborik gabeko desnibelak ebaztekoak: lokalen kanpoan eta barruan nibel desberdinak izatea ahal den neurrian ebazteko jarduketak, lokaletan sartzeko eta gelen artean mugitzeko ibilerraztasuna hobetzekoak eta barnealdeko mugikortasuna mugatzen duten oztopoak kentzekoak.

2. lerroa: Efizientzia energetikoa hobetzeko: Etxebizitza eraikitako efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuak: energia eskaria jaitsi eta instalazioen efizientzia handitzeko eta autokontsumorako energia berriztagarriak sortzea eta erabilitea bultzatzeko eta, horrela, funtzionamendu eta okupazio baldintza normaletan

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

Convocatoria general de subvenciones 2020. Anexo n.º 34: Línea de subvención: Subvenciones en materia de accesibilidad y eficiencia energética. BDNS (Identif.): 517130.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/517130>).

Extracto de la Resolución n.º 685 de 22 de julio de 2020 de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irun, por la que se aprueba la convocatoria general de subvenciones 2020.

Línea de subvención: Subvenciones en materia de accesibilidad y eficiencia energética.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/es/convocatorias/organo/LO1200454>).

Toda la documentación e información relacionada con esta convocatoria puede consultarse en el Portal de Internet del Ayuntamiento de Irun www.irun.org.

Objeto.

Es objeto de las siguientes bases la regulación de las condiciones de concesión de ayudas económicas en los siguientes campos de actuación:

Línea 1: Mejoras en materia de accesibilidad: proyectos que definan actuaciones que solucionen, en la medida de lo posible, las dificultades del cumplimiento de la Ley de Accesibilidad y que provengan de la falta de ascensores, así como de la mala definición de los mismos por existencia de desniveles (escaleras) u otras barreras constructivas, dentro de los portales o en el umbral del acceso al portal, así como las obras para llevarlas a cabo. Así mismo, también aquellas actuaciones que, en el interior de las viviendas, mejoren la accesibilidad a sus dependencias y eliminen obstáculos que impidan la movilidad en su interior. Y, por último, también las actuaciones que faciliten en los locales comerciales una mayor adecuación a la normativa de accesibilidad. Quedan comprendidos desniveles salvados mediante escaleras sin soluciones alternativas. Son actuaciones que resuelvan, en la medida de lo posible, la existencia de diferentes niveles en el itinerario exterior y en el interior de los locales, mejoren la accesibilidad a sus dependencias y eliminen obstáculos que comprometan la movilidad en su interior.

Línea 2: Actuaciones de mejora en materia de eficiencia energética: Proyectos orientados a la mejora de la eficiencia energética de los edificios residenciales en su conjunto, actuando tanto en la reducción de la demanda energética como en el aumento de la eficiencia de las instalaciones y en el fomento

energia konbentzional termiko edo elektrikoaren kontsumoa jais-teko proiektuak eta berauek gauzatzeko lanak. Etxebizitza eta lokal bakoitzaren barruan helburu bera lortzeko egiten diren jarduketak.

Onuradunak eta betekizunak.

Jarduera garatzen den eremuaren arabera, honako hauek izan daitezke onuradun:

Bizitegi-eraikinetako jarduketetan kasuan: jarduketa proposatzen den higiezinaren jabetza horizontaleko erregimeneko eraikinen jabe diren pertsona fisikoak edo jabeen Erkidegoak. Familia bakarreko etxebizitzetarako diru-laguntzen kasuan, jarduketaren xede den higiezinaren jabe edo errentari diren pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte laguntza horiek.

Etxebizitzetako jarduketak: jarduketa proposatzen den higiezinaren jabe edo errentari diren pertsona fisikoak.

Merkataritza-establezimenduetako jarduketak: jarduketa proposatzen den higiezinaren jabe edo errentari diren pertsona fisikoak.

Industria eta zerbitzuen sektoreko enpresetan jarduketak: jarduera proposatzen den higiezinaren enpresa-jarduera gauzatzeko duten enpresak. Jarduera hori bateragarria da industria-instalazioa bizi den partzelan aplikatu beharreko hirigintza-kalifikazioarekin eta araudiarekin.

Era berean, finantzatu ahal izango dira 2019ko urriaren 31tik 2020ko urriaren 30era bitartean amaitutako jarduketak, bai eta, baldintzak beteta ere, aurreko deialdian baliabide ekonomikorik ez izateagatik erantzun ezin izan zirenak ere, honako kasu hauetan, eta guztiak dagokion udal-lizentzia edo baimenarekin gauzatu beharko dira:

1.1.a. Lehen aldiz instalatzeko lanak.

1.1.b. Dagoeneko martxan dagoen igogailu bateko ibilbidea (bide publikotik etxebizitza bakoitzera bitartekoa) ibilerrak bihurtzeko lanak.

1.1.c. Pasabideak/ateak egokitzeko lanak: zabalera, norabidea, etab. aldatzekoak eta/edo beharrezkoak diren mekanismoak/elementuak instalatzekoak.

1.2. Etxebizitzetako ibilerraztasuna hobetzeko jarduketak.

1.3. Merkataritza establezimenduetako ibilerraztasuna hobetzeko jarduketak.

2.2. Etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak.

2.3. Merkataritza establezimenduetako efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak.

Era berean, eta jarduera-tipologia hauetarako, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko urriaren 30era bitartean amaitutako jarduerak finantzatu ahal izango dira:

2.1.a. Eraikinen ingurutzatze termikoa hobetzeko jarduketak.

2.1.c. Bizitegi eraikinen autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioak.

2.4.a. Industria sektoreko eta zerbitzuen sektoreko enpresen autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioak.

1.1.d. Bizitegi eraikinetako ibilerraztasuna hobetzeko proiektu teknikoak.

de la generación y uso de energías renovables destinadas a autoconsumo. Todo ello, con el objetivo de reducir el consumo de energía convencional térmica o eléctrica, en condiciones normales de funcionamiento y ocupación, así como las obras para llevarlas a cabo. Así mismo, también las obras que lleven a cabo actuaciones en el interior de las viviendas y locales individualmente, con el mismo objetivo.

Beneficiarios/as y requisitos.

Dependiendo el ámbito donde se desarrolle la actuación, podrán obtener la condición de beneficiario:

En el caso de actuaciones en edificios residenciales: las personas físicas propietarias o Comunidades de propietarios de edificios en régimen de propiedad horizontal del inmueble sobre el que se propone la actuación. En el caso de las subvenciones destinadas a viviendas unifamiliares, podrán solicitar dichas ayudas las personas físicas propietarias o arrendatarias del inmueble sobre el que se propone la actuación.

Actuaciones en viviendas: las personas físicas propietarias o arrendatarias del inmueble sobre el que se propone la actuación.

Actuaciones en establecimientos comerciales: las personas físicas propietarias o arrendatarias del inmueble sobre el que se propone la actuación.

Actuaciones en empresas del sector industria y servicios: las empresas que ejerzan su actividad empresarial en el inmueble sobre el que se propone la actuación, siendo esa actividad compatible con la calificación y normativa urbanística de aplicación en la parcela en la que se residencia la planta industrial.

Asimismo, podrán ser financiadas aquellas actuaciones terminadas entre el 31 de octubre de 2019 y el 30 de octubre de 2020, así como las que, reuniendo requisitos, no pudieron atenderse en la convocatoria inmediata anterior por falta de recursos económicos, en los siguientes casos, y debiendo ser todas ellas ejecutadas con la preceptiva licencia o autorización municipal correspondiente:

1.1.a. La ejecución de obras para primera instalación de ascensores.

1.1.b. La ejecución de obras para hacer accesible el recorrido de un ascensor existente desde la vía pública hasta cada una de las viviendas.

1.1.c. La ejecución de obras para adecuación de pasos/puertas: ancho, sentido,... y/o la instalación de mecanismos/elementos necesarios.

1.2. Mejora de Accesibilidad en viviendas.

1.3. Mejora de Accesibilidad en establecimientos comerciales.

2.2. Mejora de la eficiencia energética en viviendas.

2.3. Mejora de eficiencia energética en establecimientos comerciales.

Asimismo, y para las siguientes tipologías de actuaciones, podrán ser financiadas aquellas actuaciones terminadas entre el día siguiente a la publicación de las bases y el 30 de octubre de 2020:

2.1.a. Mejora de la envolvente térmica del edificio.

2.1.c. Instalaciones de generación de energía eléctrica fotovoltaica para autoconsumo en edificios residenciales.

2.4.a. Instalaciones de generación de energía eléctrica fotovoltaica para autoconsumo en empresas del sector industrial y servicios.

1.1.d. Proyectos técnicos de mejora de accesibilidad en edificios residenciales.

2.1.b. Inguratzaille termikoa hobetzeko proiektu teknikoak.

Nolanahi ere diruz lagungarri diren jarduketak Irungo udalerrian kokatuta dauden eraikin edo instalazioetarako izango dira.

Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Aurrekontu-zuzkidura: 1.500.000 euro.

Aurrekontu aplikazioa: 1 0710.480.01.152.20 eta 1 0710.480.01.170.30.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren hurrengotik hasi eta 2020ko urriak 30a arte luzatuko da eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkeztuko dira Irungo Udalaren aurrean, HAZ Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez, Udal Egoitza Elektronikoa edo Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera beste edozein prozedura bitartez.

Irun, 2020ko uztailaren 23a.—Hirigintzako teknikaria.

(3779)

2.1.b. Proyectos técnicos de mejora de la envolvente térmica.

En todo caso las actuaciones subvencionables vendrán referidas a edificios o instalaciones sitas en el término municipal de Irun.

Dotación económica y cuantía.

Dotación presupuestaria: 1.500.000 euros.

Aplicaciones presupuestarias: 1 0710.480.01.152.20 y 1 0710.480.01.170.30.

Plazo y forma de presentación de las solicitudes.

El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 30 de octubre de 2020.

Las solicitudes se presentarán ante el Ayuntamiento de Irun a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC), Sede Electrónica Municipal o cualquier otro medio previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común.

Irun, a 23 de julio de 2020.—La técnico de Urbanismo.

(3779)